

ehbildu



zerbitzua
cuskaraz



EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Rebeka Ubera Aranzeta EH Bildu taldeko legebiltzarkide eta bozeramaileordeak, indarrean dagoen Erregelamendua baliatuz, ondorengo **LEGE PROPOSAMENA** aurkezten du, **EUSKARA JAKITEKO ESKUBIDEA BERMATZEKO**.

EUSKARA JAKITEKO ESKUBIDEA BERMATZEKO LEGE PROPOSAMENA

ZIOA

1979ko Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6.1 artikulua ezartzen du euskara Euskal Herriaren hizkuntza propioa dela eta ofiziala izango dela Euskadin. Halaber, herritar guztiek euskara jakiteko eskubidea dutela aldarrikatzen da.

Halaber, 10/1982 Euskararen erabilpena normalizatzeko oinarritzko legearen 5.1 artikulua herritar guztiek euskara jakiteko eskubidea dutela berresten du.

Bestetik, Autonomia Estatutuak berak, 6.2 artikuluan adierazten du EAEren erakunde amankomunek euskararen ezagutza ziurtatzeko behar diren neurri eta baliabideak bideratu eta arautuko dituztela.

Herritarrek euskara jakiteko eskubidea bermatzeko EAEko Administrazio amankomunak bide luzea egin du eta berariazko garapen araugilea eta legegilea burutu ditu.

Hezkuntzaren alorrean esaterako, 138/1983 dekretuak hizkuntza ofizialen erabilera irakaskuntza ez-unibertsitarioan arautu zuen eta bertan ezarri ziren A, B eta D ereduak. Halaber, Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 legearen helburuen artean aldarrikatu zen ikasle guztiek derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izan dezaten bermatu behar dela.

Hezkuntza-sistematik kanpo dauden herritarrek euskara jakiteko eskubidea gauzatzeko bideak 29/1983 HABEren sortze-legeak jarri zituen. Bertan, euskaltegi-sarea definitzeaz gain EAEko administrazio orokorrari helduen euskalduntzeko sistema finantzatzeko eginkizuna ematen zitzaion.

Ahalegin horiek guztiek, hala ere, hainbat disfuntzio erakutsi dituzte.

Hezkuntza-sistemak derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatzeak ez die bermatzen ikasle guztiei euskaraz nahikotasunez aritzeko gaitasuna edukitzea.

Helduen euskalduntzearen alorrean herritarrek euskara ikastea ez da eskubide unibertsal bezala jasotzen. Ondorioz, herritarrek inbertsio ekonomiko adierazgarria egitera behartzen ditu eskubidearen jabe izan nahi badute. Egia da administrazioak diruz laguntzen duela euskara ikastea, baina sistema ez da osoa eta ez du biderik jartzen herritarrentzat hizkuntza ofizial biak jakitea kostu ekonomiko nabarmenik izan ez dezan. Jaso ditzaketen diru-laguntzak ez dira homogeneoak ezta ekitatiboak ere. Herritarra bizi den udalerraren arabera aldatzen dira. Udal askok HABEK emandako diru-laguntzak osatzen dituzte, baina laguntza jasotzeko parametroak eta baldintzak udal batetik beste batera kanbiatu egiten dira herritarren artean desberdintasun onartezinak sorturik. Desberdintasuna ere agertzen da euskara euskaltegi-sarean ikasten bada edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan.

Egoerara hori guztia kontuan hartuta lege honek helburu du herritarrek euskara ikasteko duten eskubidea egiatan bermatzeko baldintzak ezartzea eta herritar guztiek eskubide hori gozatzeko aukera berdinak eta ekitatiboak izan ditzaten bermea ematea.

Atariko tituluari, legearen helburua eta aplikazio-esparrua adierazteaz landa, onartzen zaie EAEko biztanle guztiei euskara jakiteko eskubidea eta EAEko administrazio orokorrari esleitzen zaio eskubidea bermatzeko ardura. Halaber, eskubide hori gauzatzeko unean inor ezin dela bizilekuaren arabera diskriminatu aldarrikatzen da. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 maila lortzean jotzen da eskubidea gozatzeko ari dela herritarra.

Lehen tituluak hezkuntza-sistemari buruz dihardu. Bertan ezartzen da Derrigorrezko Irakaskuntza-aldia bukatzean ikasle guztiek Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 maila egiaztatu beharko dutela Bigarren Mailako Irakaskuntzako graduatu titulua jaso ahal izateko. Gainera, sistemara berandu sartutako ikasleen kasua era arautzen da.

Bigarren titulua helduen euskalduntzeaz dihardu. Lehenik lege honen kasuan pertsona heldu zer den definitzen da. Herritarrek B2 maila pareko jakintza lortzeko euskara ikastea herritarrentzat doakoa izango dela ezartzen du, baldin eta ikasketa Hizkuntza Eskola Ofizialean eta euskaltegi publikoetan edo homologatuetan egiten bada. Baliabidea ekonomikoak Eusko Jaurlaritzak jarri beharko dituela eta HABEK kudeatuko dituela esaten da. Diputazioei eta udalei laguntzak emateko aukerak zein kasutan onartzen zaie seinalatzen da. Etorri berriek euskara eta gaztelania ikasteko eskubidea dutela eta ikasketa-prozesua aldi berean egin behar dela aldarrikatzen da.

Eta azkenik, langile publikoek euskara jakiteko eskubidea dutela aldarrikatzen da eta administrazioek eskubide hori bermatzeko ardura dutela.

Xedapen gehigarri batek, xedapen indargetzaile batek eta azken xedapenak osatzen dute legea.

ATARIKO TITULUA

1. Artikulua. Xedea

Lege honen xedea, Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarrek euskara ikasi, jakin eta erabiltzeko duten eskubidean urratsak ematea da, urteetan izan diren eragozpenak gaindituz eta ikasketa prozesuaren kostu ekonomikoak sortu izan dituen mugak ezabatuz.

2. Artikulua. Lurralde-eremua

Lege honetan aurreikusitako neurriek Euskadiko Autonomia Erkidegoko herritarrengan izango dute eragina.

3. artikulua. Printzipio nagusiak

1. EAEko herritar guztiek dute euskara jakiteko eskubidea.
2. Herritarrak ezin izango dira diskriminatu euskara ikasteko eskubidea gauzatzeko unean bizi diren udalerrria edo beste ezein arrazoi dela medio.
3. Herritarrak ezin izango dira diskriminatu euskara ikasteko eskubidea gauzatzeko unean bizi duten egoera ekonomikoagatik.

4. artikulua. Gaitasuna

Herritarrak euskara jakiteko eskubideaz gozaten duela kontsideratuko da Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 mailaren pareko gaitasuna lortzen duenean.

5. artikulua. Eskubidearen bermea

1. EAEko administrazio amankomunak bermatu beharko die herritar guztiei euskara jakiteko eskubidea gauzatzeko aukera.
2. Eusko Jaurlaritzak urteroko aurrekontuetan lege honen lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren artikuluetan aipatutako helburuak egiatan betetzeko beharrezkoak diren diru-ekarpenak aurreikusiko dituzte.
3. Euskara jakiteko eskubidea bermatzeko Eusko Jaurlaritzak beharrezkoa den garapen araugilea obratuko du.

LEHEN TITULUA. HEZKUNTZA SISTEMA

6. artikulua. Derrigorrezko irakaskuntza aldiaren hizkuntza maila

1. Derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatutakoan ikasle guztiek Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 maila egiaztatu beharko dute, gaztelaniaz zein euskaraz, Bigarren Mailako Irakaskuntzako graduatu titulua jaso ahal izateko.
2. Ikasleek 1. paragrafoan jarritako helburuak bete ahal izan ditzaten hezkuntza-sistemaren ardura duen Eusko Jaurlaritzako sailak beharrezkoak diren neurri araugileak hartuko ditu eta beharrezkoak diren giza eta ekonomia-baliabideak esleituko ditu.

7. artikulua. Hezkuntza sistemaren baitako integrazioa

1. Derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatu baino lehen EAEko hezkuntza-sisteman integratzen diren ikasleek eskolak, bi hizkuntza ofizialetan jarraitzeko gai izan daitezen hizkuntza-eskolak hartuko dituzte.
2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatu baino lehen, EAEko hezkuntza-sisteman integratzen diren ikasleek laguntza bereziak izango dituzte, irakaskuntza-aldia bukatzen dutenean, bi hizkuntza ofizialak nahikotasunez (B2) jakitea lor dezaten.

BIGARREN TITULUA. HELDUAK EUSKALDUNTZEA

8. artikulua. Pertsona heldua

Lege honetan pertsona heldutzat joko da, derrigorrezko irakaskuntza-aldia bukatu duena, titulua lortuta ala ez.

9. artikulua. Doakotasuna

1. EAEko biztanle helduentzat bi hizkuntza ofizialak ikastea doako izango da izango du B2 mailaren pareko jakintza lortu arte.
2. Euskara ikastearen kasuan hizkuntza Hizkuntza Eskola Ofizialean edo euskaltegi publiko edo homologatu batean ikasi beharko da 1. atalean agindutako eskubidearen jabe izateko.
3. Euskara barnetegian ikasten bada, matrikulari aplikatuko zaio soilik 3. puntuari aipaturako prezio publikoa.

4. Langabetuek eta DBE jasotzaileek Lanbideren bidez euskara ikastea edo hobetzea doako izango dute.
5. Eusko Jaurlaritzaren ardura da 1. puntuan betetzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak esleitzea eta kudeatzea. HABEk izango du kudeaketaren ardura.
6. EAEko erakunde amankomunez besteko erakundeek, Foru Aldundiek eta udalek, euskara ikasteko laguntza propioak eman ahal izango dituzte bi kasutan:
 - a. Ezein mailetan barnetegietan euskara ikasteak sortzen dituen ostatatze- eta mantentze-gastuak arintzeko.
 - b. C1 eta C2 mailak lortzeko ikastaroetan matrikulazio-gastuak arintzeko.

10. artikulua. EAEra iritsitako pertsonak

1. EAEra iritsitako pertsonak, izan migratzaile zein errefuxiatu, bi hizkuntza ofizialak ikasteko eskubidea dute. Harrera-protokoloetan neurriak ezarriko dira eskubide hori egiazki bete ahal izateko.
2. Hizkuntza ofizialak ikastea doakoa izango dute eta hasiera beretik biak aldi berean ikas dezaten bermatuko da.

11. artikulua. Administrazioen konpromisoa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorreko, foru-aldundietako, toki-administrazioetako eta beraiekiko menpekotasuna duten instituzioetako eta enpresetako langileek euskara jakiteko eskubidea dute.

2. EAEko administrazio publikoek bermatuko diete beren langile guztiei, ezein delarik beraien egoera laborala, euskara ikasteko eskubidea. Horretarako beharrezkoak diren baliabideak esleituko dituzte eta, beharrezkoa izanez gero, programa propioak garatuko dituzte.
3. EAEko administrazio publikoek euskara ikasteko duten eskubidea langilearen lan-orduetan gauzatzea lehenetsiko da. Euskalduntzearen kostu osoak administrazioak beregain hartuko du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

EAEren aurrekontuek lege honetatik erator daitezkeen konpromiso ekonomikoak betetzeko adinako diru-zuzkidura jasoko dute.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira Lege honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko ala beheagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau garatu eta gauzatzeko beharrezko diren erregelamendu-mailako xedapenak emateko eskua ematen zaio Jaurlaritzari eta hori burutzeko legea argitaratu eta gehienez urtebeteko epea izango du.

Lege hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta jarduneko hurrengo Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen diren egunean sartuko da indarrean.

Gasteizen, 2018ko urriaren 17an

Rebeka Ubera Aranzeta

EH Bilduko legebiltzarkide eta bozeramaileordea